Goi Eskola Politeknikoa

Albisteak

Diplomatu berriak Amurrioko Industria Kudeaketako Ikastaro Aurreratuan

2014/05/15

Etengabe prestakuntzako ikastaroa Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak zuzendu eta eman du, joan den urriaz geroztik seihileko batean zehar, Amurrio eta Laudioko garapen Agentzien instalazioetan. Bertan ibarreko bost enpresatako 20 buruk hartu dute parte: Aiala Vidrio, Guardian, Talleres Gometegui, Tubacex eta Tubos Reunidos.

Ikastaroa enpresa sarea hobetuz eskualdearen garapena bultzatzeko asmoarekin sortu zen, bertako arduradunen prestakuntza azpimarratuz, enpresek behar hori detektatu baitzuten. Amalur Fundazioak puntako lau enpresa eta Laudio eta Amurrioko prestakuntza zentroak elkartzea lortu zuen, elkarrekin eskualdeko enpresa guztientzat zabalik egongo den proiektu bat diseinatzeko, Mondragon Unibertsitateak gidatuta eta berak emanda.

Profesionalentzako prestakuntza hori esperientzia aitzindaria da gure eskualdean eta, ikasleen eta enpresa parte hartzaileen artean lortutako arrakasta eta gogobetetzea ikusirik, aurrerantzean ere gurean geratuko da. Garapen natural moduan, etorkizun hurbilean, gure ibarrean Produkzio Zuzendaritzako Masterra emateko aukera aztertzen ari dira.

Epe laburrera, Industria Kudeaketaren Ikastaro Aurreratuaren bigarren edizioa proiektatu da, datorren urrian hasteko.

Ekitaldian izan dira Vicente Atxa, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko zuzendaria, eta Amurrio eta Laudioko alkatea –diplomak entregatu dituzte–, baita enpresa parte hartzaileen giza baliabideetako arduradunak ere.

Industria Kudeaketako Ikastaro Aurreratuaren diploma banaketa